

TXOSTENA

Espediente zk.: 2019IK200018 Emakumeen etxeko kudeaketa zerbitzua

Gaia: Aurkeztutako proiektuen balorazioa

Zarauzko udaleko Parekidetasun departamentuak Emakumeen* Etxearen proiektua egiteko, dinamizatzeko, programak eta zerbitzuak prestatzeko eta kudeatzeko zerbitzuak kontratatzeko lehiaketa irekia deitu du.

Lehiaketara lau enpresak aurkeztu dituzte beraien proiektuak:

- Arazi IKT SL
- Kabia Elkartea
- Daiteke-Carreers & Jobs, SL.
- Ortzadar

Txosten honen bidez, administrazio klausuletako 11.2 artikuluan jasotakoaren arabera, formula bidez ebaluatzeak ez diren irizpideen balorazioa jaso dugu.

ARAZI IKT SL:

Arazi IKT SL enpresak aurkeztutako proiektua aztertu ondoren, hau da balorazioa:

PROIEKTUAREN DISEINUA: GEHIENEZ 25 PUNTU		
BALORAZIO IRIZPIDEAK	PUNTUAK GEHIENEZ	LORTUTAKO PUNTUAK
1. Zerbitzua garatzeko proposamena: programak, ikastaroak, planak, jarduerak	5	3
2. Helburuak lortzeko programazioa	5	3
3. Emakumeen etxea sozializatu eta hedatzeko jardueren proposamena	5	5
4. Etxean emakumeen partehartzea eta inplikazioa sustatzeko proposamenak (emakumeen talde eta elkarteak, emakume etorkinak, gazteak, jubilatuak...)	5	3
5. Etxearen dinamizaziorako erabiliko den metodología eta zerbitzuen eta programen ebaluazioa	5	3
PUNTUAZIOA GUZTIRA		17

Proiektua hiru fasetan banatzen dute:

I fasea: Etxea ireki aurretik:

Proiektua zabaltzeko eta sozializatzeko.

Beharrezkoa ikusten da parte-hartze prozesu bat irekitzea.

Fase honetan Jardunaldi irekiak egitea proposatzen dute, emakumeen* etxea sozializatzeko eta hedatzeko eta emakumeen ekarpenak eta ideak jasotzeko.

Udalak 2018. urtean egindako parte-hartze prozesuaren ondorioz sortutako txostena oinarritzat hartuta, proiektuaren helburua eta ezaugarriak osatzeko eta zehazteko.

Jardunaldi horretara gonbidapenak: herriko emakume elkarteei, eta beste arloetako elkarteei gonbidapena bidaliko zaie eta, horrez gain, "teaser" bat grabatuko dute jardunaldia zabaltzeko.

Parte-hartze prozesuan parte hartu zuten emakumeekin bilerak eta foroak antolatzea proposatzen dute.

Bestalde, inkesta batzuk egitea ere proposatzen da, baina ez dute zehazten zenbat, nola, nori??

II fasea: Emakumeen* etxearen baitan eman beharreko jarduerak diseinatzeko eta bete beharreko helburuak lortzeko beste parte-hartze prozesu bat abian jartzea.

Prozesu honetan udalak 2018an egindako parte-hartze prozesuaren ondorioz sortutako txostena berrikusi eta osatuko litzateke. (Aurrekoan ere hori jaso dute).

Bestalde, bilera hauetan lantzeko jardueren zerrenda bat proposatzen dute.

Bide batez, prozesu honen baitan, espazioaren banaketa aztertzea aurreikusten dute.

III fasea: Emakumeen* Etxeak eskainiko dituen zerbitzuak definituko lirateke eta hauek aplikatzeko behin behineko egutegia proposatuko litzateke.

"Zerbitzuei dagokienez, II. Fasean Parekidetasun teknikariarekin batera definitutako jarduerak eskainiko dira" (II fasean jaso dute emakumeekin egindako bileretan definituko direla jarduerak).

Ordutegia: Bi egun goizez eta egunero arratsaldez. Egutegiaren proposamena ere jaso dute.

Proposatzen dituzten zerbitzuak: psikologo eta abokatu zerbitzuak eta sexu-hezitzailea.

Proiektuak emakumeen* etxea diseinatzeko parte-hartze prozesua jasotzen du bereziki, baina ez du jadanik etxearen funtzionamendurako beste proposamenik jasotzen. Halere, parte-hartze prozesu horretan lantzeko proposatzen duten jardueren zerrenda jaso dute. Baina ez dute proposamenarik egiten dinamizazioari buruz, funtzionamenduari buruz, sortu beharreko sinergieiei buruz, kolektibo "ezberdinak" erakartzeko estrategiari buruz, eta abar.

Emakumeak prozesuan inplikatzeko estrategiak zehaztu dituzte modu zabalean, baina prozesuaren nondik norakoak ez daude oso argi, adibidez II fasean ez dute zehaztu bilera kopurua, inkestak egitea proposatzen dute baina ez dute zehaztu zenbat, nola, nori...

Etxea dinamizatzeko metodología ez dute zehaztu, dena partaidetza prozesuan lantzea aurreikusi dute, baina ez dituzte euren proposamena edo ideia jaso.

Ebaluazioari dagokionez, prozesuan zehar ebaluazio jarraia egingo dela aipatzen dute besterik babe, baina ez dute gai honi buruz beste ezer jaso.

KABIA ELKARTEA:

Kabia elkarteak aurkeztutako proiektua aztertu ondoren, hau da balorazioa:

PROIEKTUAREN DISEINUA: GEHIENEZ 25 PUNTU		
BALORAZIO IRIZPIDEAK	PUNTUAK GEHIENEZ	LORTUTAKO PUNTUAK
1. Zerbitzua garatzeko proposamena: programak, ikastaroak, planak, jarduerak	5	4
2. Helburuak lortzeko programazioa	5	3
3. Emakumeen etxea sozializatu eta hedatzeko jardueren proposamena	5	4
4. Etxean emakumeen partehartzea eta inplikazioa sustatzeko proposamenak (emakumeen talde eta elkarteak, emakume etorkinak, gazteak, jubilatutak...)	5	4
5. Etxearen dinamizatorako erabiliko den metodologia eta zerbitzuen eta programen ebaluazioa	5	5
PUNTUAZIOA GUZTIRA		20

Etxeak eskaini beharko lituzkeen arloak zehaztu dituzte: elkarte arloa, kultura, artegintza, ahalduntzea, harrera eta informazioa, kulturartekotasuna, komunitatea, aholkularitza eta zaintza.

Proposatzen dituzten programak irekiak dira emakumeen* etxean parte hartuko duten emakumeekin elkar lanean diseinatzeko modukoak.

Proiektuan baldintza teknikoetan jasotako zerbitzuaren helburuak lortzeko programazioa zehaztu dute:

- Kolektibo bezala, espazio bat edukitzea, emakumeok elkartzeko eta indartzeko*
Emakumeei banakako eta taldeko autonomia lortzeko garapenean lagunduko die dinamizatzaileak orientazioak eta informazioak emanez
- Belaunaldi desberdinetako emakumeon arteko sareak sustatzea*
Emakumeen eskura gune ez formalak ipintzea, bertan hainbat gai bultzatzeko eta sustatzeko.
- Emakumeok maila pertsonalean eta kolektiboan hazten eta hezten laguntzea*
Interesgune aukeraren arabera partaidetza egokietarako guneak sortzea proposatzen dute; ideien eskaera, taldeko ekintzen ebaluazioa, partekatutako ekintzen antolaketa eta proiektuetan oinarritutako esku-hartzea.
- Emakumeon parte-hartzea eta asoziazionismoa sustatzea bizitzako arlo guztietan*
Herriko talde eta elkarteekin koordinazio egitura bat sortu. Etxean burututako zenbait tailer, ikastaro edo ekintza herriko hainbat elkarteekin batera garatzea.

5. *Emakumeon ahalduntzea eta autonomia lantzea. Eta feminismoan sakontzea*
Pentsamendu feministari buruzko solasaldiak, eztabaida-mahaiak e.a. Emakumeen ahalduntzea eta autonomia lantzeko behar dituzten baliabideak eskura jarriko dira.
6. *Indarkeria sexistaren kontzientzia hartu eta errotik ezabatzeko bideak egitea*
Inguruan aurrera eramaten diren proiektuak ezagutu. Hortik abiatuz, emakumeen ekarpenak eta proposamenak landu eta aurrera eraman
7. *Emakume desberdinen ekarpenak jaso eta horiei balioa emateko espazio bat izatea*
Etxea emakume ororen topagunea eta harreman gunea izaten ahalegindu behar da. Zailtasun bereziak dituzten emakumeentzako gune bat egokitu.
8. *Fisikoki eta sinbolikoki, herrian emakumeentzako erreferentziazko espazio bat izatea.*
Difusio etengabea alde batetik eta bestetik, etxea ezagutarazteko herriko eragile guztiekin harremanak sustatzea.

Plangintza aurrera eramateko estrategiak ere jaso egin dituzte:

1. Erabiltzaile eta dinamizatzaileren arteko erlazioan oinarritutako elkargune bat eskaini
2. Erabiltzaileen parte hartze aktiboa sustatu ta indartu
3. Erabiltzaileen eskaerei erantzuten dien proiektuak sustatu
4. Zerbitzuaren izaera komunitario garatu
5. Emakumeen etxearen proiektua ikustarazi
6. Udaleko sail ezberdinekin elkarlan bideak jorratu
7. Euskararen erabilpena bultzatu eta sustatu
8. Herriko hainbat eragileekin koordinazioa

Programazioa oso modu orokorrean jaso dute helburu guztietan, ideiak edo nahiak jaso dituzte baina konkretatu gabe, ez dute islatu nola bideratu behar dituzten proposatutako ideia horiek.

Proiektuaren filosofia eta planteamendua ondo dago, baina praktikan aurrera eramateko jarduerak, ekimenak, zerbitzuak e.a. ez dituzte jaso.

Ebaluazioa:

Aurreikusi dituzten alderdi ebaluagarriek arlo guztiak jasotzen dituzte
Erabiltzaileen eskaerak eta erantzuna hileroko ebaluatu, hileroko txostena
Programazioa lau hilez behin
Urteko memoria

Aintzat hartzeko:

Hiru hileko plangintza egiteko asanbladak antolatzea aurreikusi dute.
Herriko ekimenetan, jaietan eta bizitzan emakumeen parte hartzea sustatzea.
Udaleko beste departamentuekin eta teknikariekinekin ekar-lana
Herriko eragileekin koordinazioa
Etxea sozializatzeko baliabide asko aurreikusi dituzte.
Etxea dinamizatzeko metodologia: "Círculo de Deming" metodologia aurreikusi dute.

DAITEKE:

Daiteke-Careers & Jobs, SL enpresak aurkeztutako proiektua aztertu ondoren, hau da balorazioa:

PROIEKTUAREN DISEINUA: GEHIENEZ 25 PUNTU		
BALORAZIO IRIZPIDEAK	PUNTUAK GEHIENEZ	LORTUTAKO PUNTUAK
1. Zerbitzua garatzeko proposamena: programak, ikastaroak, planak, jarduerak	5	5
2. Helburuak lortzeko programazioa	5	5
3. Emakumeen etxea sozializatu eta hedatzeko jardueren proposamena	5	4
4. Etxean emakumeen partehartzea eta inplikazioa sustatzeko proposamenak (emakumeen talde eta elkarteak, emakume etorkinak, gazteak, jubilatua...	5	4
5. Etxearen dinamizatorako erabiliko den metodologia eta zerbitzuen eta programen ebaluazioa	5	4
PUNTUAZIOA GUZTIRA		22

2018. urtean egindako partaidetza prozesuan jasotako ekarpenak eta ondorioz sortutako txostenean jasotako oinarritzat hartu dute proiektua egiteko.

Proiektuan baldintza teknikoetan jasotako zerbitzuaren helburuak lortzeko programazioa zehaztu dute:

- Kolektibo bezala, espazio bat edukitzea, emakumeok elkartzeko eta indartzeko*
Emakumeen etxea Zarauzko erreferente gisa bihurtuko dugu.
Komunikazio ekimenak egitea, dokumentazio zentroa garatzea, emakume elkarten bilerak...
- Belaunaldi desberdinetako emakumeon arteko sareak sustatzea*
Emakumeen arteko sareak sortzeko ekimenak antolatuko dira (ez dute gehiago zehazten)
- Emakumeok maila pertsonalean eta kolektiboan hazten eta hezten laguntzea*
Ikastaroak, tailerrak, ekimenak, jardunaldiak... (ez dute gehiago zehazten)
- Emakumeon parte-hartzea eta asoziazionismoa sustatzea bizitzako arlo guztietan*
Emakumeen elkartei beraien gune propioa izateko aukera emango zaie
- Emakumeon ahalduntzea eta autonomia lantzea. Eta feminismoan sakontzea*
Aholkulari zerbitzu ezberdinak eskaintzea (sexologia, aholkularitza...) eta eragile ezberdinekin deribazioak koordinatu
- Indarkeria sexistaren kontzientzia hartu eta errotik ezabatzeko bideak egitea.*
Autodefentsa tailerrak, Beldur barik, hitzaldiak, elkarrizketa guneak...

7. *Emakume desberdinen ekarpenak jaso eta horiei balioa emateko espazio bat izatea.*
Erakusketak, herriko emakumeen ekarpen historikoen erreferentziak bildu, jabetze eskolaren ikastaroetan sortzen diren emaitzak bildu eta sozializatu...
8. *Fisikoki eta sinbolikoki, herrian emakumeentzako erreferentziatzko espazio bat izatea.*
Berdintasun kontseilua, hezkidetza foroa eta hainbat gune feministen topalekua izango da. Bilera hauen deialdia egin eta behar diren materialak prestatu.

Zerbitzua garatzeko programak:

Etxea ireki baino lehen:

Partaidetza prozesuan parte hartu duten emakumeekin bilerak.

Etxearen aurkezpena: erakundeei begira eta herritarrei begira

Emakumeentzako jabetze eskolako egitaraua prestatu eta berdintasun kontseiluari aurkeztu

Baliabide materialak zehaztu eta eskaerak kudeatu

Hitzaldiak, erakusketak, ekitaldiak... identifikatu

Etxea ireki ondoren:

Harrera lanak. Etxearen erabilera koordinatu. Zerbitzuak eta programak prestatu, zabaldu, zuzendu eta ebaluatu. Emakumeen elkarteekin koordinatu. Berdintasun kontseiluan parte hartu

Zerbitzuak: Baliabide zentroa fisikoa eta birtuala. Aholkularitza zerbitzuak: juridikoa, sexuala... Haurtzaindegi zerbitzua

Jarduerak: Jarduera mota ezberdinak zehazten dituzte:

Agenda, Emakumeen arteko elkarrizketak, Auto-estimua, Teoria feminista, Aktibismo feminista e.a.

Etxea sozializatu eta hedatzeko: Topaketak, prentsaurrekoak, sare sozialak....

Emakumeen partehartzea eta inplikazioa sustatzeko:

Elkarlana herriko eragileekin, emakumeen arteko elkarrizketak antolatu, emakumeen denbora bankua.

Metodologia eta ebaluazioa:

Hiruhilabeteko ekintzen txostena eta hausnarketa saioak partaideekin

Parte-hartzearen erregistroa, elkarrizketak...

Beste emakume etxeekin koordinazioa.

Urteko memoria

Parte-hartze prozesuan parte hartu zuten emakumeekin bilerak egitea aurreikusi dute, beraiekin lantalde bat sortzea proposatzen dute; baina ez dute proposatzen partaidetza irekia, zabalagoa...

Aintzat hartzeko:

Baliabide birtualak aintzat hartzea eta bat sortzeko proposamena. Egun emakume gazteak erakartzeko ezinbestekoa jotzen dut baliabide birtualak aintzat hartzea.

Hileroko agenda sortzea eta zabaltzea
Zarauzko emakumeen denbora bankua/truke sarea

Proiektuaren filosofia eta planteamendua ondo dago, eta orokorrean proposatzen dituzten ekimen guztiak oso egokiak. Programa ondo osatua dago eta hainbat proposamen berritzaileak ere proposatu dituzte.

ORTZADAR:

Ortzadar enpresak aurkeztutako proiektua aztertu ondoren, hau da balorazioa:

PROIEKTUAREN DISEINUA: GEHIENEZ 25 PUNTU		
BALORAZIO IRIZPIDEAK	PUNTUAK GEHIENEZ	LORTUTAKO PUNTUAK
1. Zerbitzua garatzeko proposamena: programak, ikastaroak, planak, jarduerak	5	5
2. Helburuak lortzeko programazioa	5	5
3. Emakumeen etxea sozializatu eta hedatzeko jardueren proposamena	5	5
4. Etxean emakumeen partehartzea eta inplikazioa sustatzeko proposamenak (emakumeen talde eta elkarteak, emakume etorkinak, gazteak, jubilatua...	5	5
5. Etxearen dinamizatorako erabiliko den metodologia eta zerbitzuen eta programen ebaluazioa	5	5
PUNTUAZIOA GUZTIRA		25

Oharra: gazteleraz bidali dute proposamena eta ondorioz, balorazioa eta ekarpenak hizkuntza honetan jasoko ditut.

Líneas de actuación:

Información, asesoramiento, puesta en marcha de programas, identificación de desigualdades, escuela de empoderamiento, conexión con iniciativas ajenas, recursos: optimización presupuestaria.

Proponen dos bloques de actuación fundamentales a desarrollar por la dinamizadora:

Bloque 1:

Servicio de información y orientación

Dinamización social y cultural del colectivo de mujeres

Servicio de promoción, apoyo y orientación a grupos y colectivos por la igualdad

Bloque 2:

Programa de actividad

Abarca todas las actividades a programar en la casa, así como la escuela de empoderamiento.

Líneas de programación:

- Feminismo (Café feminista): desde el concepto de encuentro para generar grupo, y como espacio de conocimiento, reflexión y debate
- Crecimiento: experiencias de aprendizaje compartidas:
Actividades de aprendizaje en torno a temas como cultura, salud, etc. Por medio de talleres o actividades, pero también fomentando el intercambio de saberes entre las mujeres.
- Entornos para la igualdad
Actividades que promuevan que las mujeres reflexionen y analicen las situaciones de desigualdad que se producen en su entorno cercano y de relaciones.
- Mujer y diversidad
Abordando la diversidad generacional, funcional, sexual, cultural...
- Zarautz berdintasuna
Acciones que surjan de iniciativas formales e informales y puedan provocar cambios: modificaciones urbanísticas, visibilización de compromisos, posicionamiento feminista...
- Conecta
En esta línea centran la atención en la conexión con el entorno, enlazando con el plan de dinamización.
Visibilizar y reconocer la labor de las asociaciones de mujeres, y generar redes de colaboración entre el tejido asociativo y la casa de las mujeres.
- Encuentro
Generar actividades de encuentro en torno al ocio cultural y deportivo.
Programar actividades de alto interés para atraer a las mujeres para que participen en la casa, y fidelizar a las que ya están implicadas.

Retos que plantean:

Posicionar la casa como recurso clave del municipio

Atraer a la casa a las mujeres jóvenes y adolescentes

Fidelizar a las participantes

Conciliar las demandas de las mujeres mayores con los objetivos de la casa

Estructurar la difusión y los canales de comunicación.

Respecto a la tipología de actividades la dejan abierta en función de las necesidades, de las propuestas y de la situación: charlas, cursos, exposiciones, publicaciones....

El plan de actividades se definirán con el equipo municipal, el consejo de igualdad y las propuestas de las mujeres de los diferentes colectivos.

Previo a la apertura:

Definición del plan de difusión. Diseño de los eventos. Planificación de las acciones. Escuela de empoderamiento. Concreción del modelo de funcionamiento

Puesta en marcha:

Jornada de puertas abiertas

Acto de presentación del curso

Cursos talleres de corta duración (un trimestre). Grupos de formación de larga duración. Espacios de encuentro y reflexión, exposiciones, charlas, etc.

Objetivos:

Establecen los objetivos específicos para el curso 2019-2020. Importante la primera difusión y socialización de la casa.

Propuestas para fomentar la participación de las mujeres en la casa:

Proponen diferentes canales de recogida de ideas, necesidades e intereses.

Varios espacios de participación: espacios de encuentro, mesa de las mujeres, foro abierto anual

Espacios de intercambio con otros colectivos.

Empoderamiento activo de las mujeres

Identificación de lideresas, grupos autogestionados, etc.

Metodología:

Estrategia dual: puesta en marcha de programas y planteamiento transversal – mainstreamig-.

Evaluación:

Registro de las participantes. Trimestralmente análisis de dicho registro.

Evaluación de contactos establecidos con asociaciones, etc.

Evaluación de las actividades organizadas y de la escuela de empoderamiento.

Informes mensuales, trimestrales y memoria anual.

A tener en cuenta:

Plantean muchas estrategias de difusión y comunicación, algunas creativas e innovadoras.

Crear en las mujeres sentido de pertenencia de la casa.

Proponen un carnet de “amiga de la casa” y una participación proactiva.

Reparación de las víctimas de violencia machista.

Impulsar la generación de grupos autogestionados.

Coordinación con otros departamentos del ayuntamiento y con asociaciones y agentes sociales

Proiektuaren filosofia eta planteamendua oso ondo daude jasota, proposatzen dituzten ekimen guztiak oso egokiak. Programa ondo osatua dago, proposamen eta estrategia berritzaileak ere proposatu dituzte. Emakumeen parte-hartze aktiboa sustatzeko estrategiak oso egokiak dira. Emakumeen etxean sor ditzakeen sinergia guztiak hartu dituzte kontuan. Oso ona da proiektua.

Zarautz, 2019ko urriaren 15ean

Eduarne Urbieta Zúñiga